**BAS 2022**
APIRILAK 11 ABRIL, 19:30

**Ludovice Ensemble**
**Eduarda Melo** sopranoa / soprano
**Marta Vicente** violone
**Fernando Miguel Jalôto** organoa eta zuzendaritza / órgano y dirección

# *Tenebræ factæ sunt*

**ANDRÉ RAISON (CA.1640-1719)**
Gravement au Grand Plein Jeu (1er Kyrie de la 3ème Messe)
Livre d'Orgue contenant Cinq Messes [...] à Paris. 1688

**MICHEL-RICHARD DE LALANDE (1657-1726)**
Troisième Leçon du Mercredi S.118
Les III Leçons de Ténèbres et le Miserere a voix seule du Feu Mr. De Lalande [...] à Paris. 1730

**LOUIS MARCHAND (1669-1732)**
Plein Jeu - Fugue - Plein Jeu
Pièces d'orgue du Grand Marchand [...] 2ème Livre [ 5ème Livre] [ca. 1729]

**MICHEL-RICHARD DE LALANDE (1657-1726)**
Troisième Leçon du Jeudi S.121
Les III Leçons de Ténèbres et le Miserere a voix seule du Feu Mr. De Lalande [...] à Paris. 1730

**PIERRE DU MAGE (1674-1751)**
Plein Jeu - Récit - Grand Jeu
1er Livre d'Orgue contenant une Suite du premier Ton [...] à Paris. 1708

**MICHEL-RICHARD DE LALANDE (1657-1726)**
Troisième Leçon du Vendredi S.124
Les III Leçons de Ténèbres et le Miserere a voix seule du Feu Mr. De Lalande [...] à Paris. 1730

Michel-Richard de Lalande dugu inoizko konposatzaile frantses handienetako bat. Maître de Musique de la chapelle eta Surintendant de la Musique de la Chambre izan zen Luis XIV.a eta Luis XV.a erregeen gortean, eta klabezin-eta organo-jole ospetsua ere bai. Bereziki ezaguna da Errege Kaperarako konposatu zituen Grands Motets piezengatik, baina musika profanoa ere idatzi zuen, bai ahotserako eta bai instrumentuentzako, esaterako Symphonies pour les Soupeurs du Roy entzutetsuak. Michel-Richard de Lalande-ren hiru Leçons de Ténèbres piezak bederatzi obrako multzo baten parte izan ziren hasieran, Aste Santuko elizkizunetarako idatziak: ostegun, ostiral eta larunbaterako. Hirugarren lezioa baino ez zaigu heldu. 1711. inguruan idatziak Dames de l'Assomption komenturako –hantxe elkartzen baitziren goi-nobleziako damak–, De Lalanderen alabek interpretatu zituzten, eta urte hartan bertan hil ziren ondikoz. Leçons de Ténèbres piezak eta Miserere à voix seule lana –hau ere Aste Santuko zeremonietarako idatzia– konposatzailea hil ondoren argitaratu ziren 1730ean, Le Hüe-k Parisen erregistratu eta De Lalanderen alargunak inprimarazitako liburu batean. Lezioak hizkuntza biziki eder eta fin batean idatzita daude, sotiltasun adierazkorrez beteak deklamazio, melodien forma, apaingarri eta harmoniari dagokienez, eta ez diote deus zorrik beste lezio-ziklo ezagunago batzuei, esaterako François Couperin-ek idatzitakoei.

Leçons de Ténèbres Pazko Hirurreneko Liturgiaren zati bat dira. Maitinetako Elizkizuna goizaldean egiten zen, eta bertan 15 kandela itzaltzen ziren, bata bestearen atzetik, tenebrario izeneko piramide formako argimutil berezi batean. Nola zeremoniaren amaiera erabateko ilunpean kantatzen zen, Tenebræ bezala ezagutu zen ('Iluntasuna', latinez). Elizkizun hori ordu txikitan egiten zenez, fededun gutxi erakartzen zituen, eta elizako agintariek baimena eman zuten maitinak bezperako ilunabarrean egiteko. Hala, Ostegun Santuko maitinak asteazkenean egiten ziren eta, hortaz, gauza jakina zen "Jeudi Saint" edo ostegun santurako idatzitako piezak "Mercredi Saint" edo asteazken santuan jotzen zirela, etab. Maitinetan 9 errespontsu eta 9 irakurgai –edo Lezio– txandakatzen ziren, eta Hirurreneko egun bakoitzeko lehen hirurak Bibliako Dolamenen Liburutik ateratzen ziren. Tradizioaren arabera, Jeremias profetak idatzi zituen Dolamenak k.a. 586 urte inguruan. Bost poema dira, eta euretan deitoratzen da Jerusalemgo Tenpluaren suntsiketa Nabukodonosor erregearen agindupean eta horren ostean judutarrek pairatu zituzten deserria eta lazeriak. Hizkera bizia darabilte, irudien aberatsa eta bereziki intentsoa hainbat gai deskribatzean, esaterako miseria, indarkeria, samina, pobrezia eta gosea. Liturgia katolikoan, Dolamenak irakurtzen ziren kristauei gogorarazteko nolako gaitzak dakartzan bekatuak eta Jainkoarengandik urruntzeak, eta hertsatzeko itzul zitezen bide zuzenera, Kristoren Pasioaren tragedia biziberrituz.

Nahiz eta Pariseko zeremonialak gomendatzen zuen Dolamenak soiltasunez kantatu behar zirela Kantu Lauaren errezitazio-tonu tradizionalen gainean, Ilunpeak Parisko auhen dotoreenetako bat bihurtu ziren, jendetza handiak erakartzen zituena. Nola Académie Royal de Musique (Opera) itxita egoten zen Garizuman, eta beste entretenimendu batzuk ere mugatuta, aukera paregabea izaten zen garaiko konposatzaile handienen obrak entzuteko interprete zailduenen eskutik: gorteko musikariek Pariseko komentu eta elizak kurritzen zituzten eta Operako bakarlariek ere bat egiten zuten talentu handiko eliz gizonekin, egokiera berezi hari debozioaren distira gehitzeko.

Zoritxarrez, De Lalandek organorako idatzitako obra bihirik ez da heldu gugana, eta horregatik garai hartako hiru organo-jole frantses paregaberen obrekin osatuko dugu egitaraua: Marchand, Raison eta Du Mage.

Michel-Richard de Lalande es uno de los compositores franceses más grandes de todos los tiempos. Fue Maître de Musique de la chapelle y Surintendant de la Musique de la Chambre en la corte de Luis XIV y Luis XV, además de ser un eminente clavecinista y organista. Destacó sobre todo en la composición de Grands Motets para la Capilla Real, pero también escribió abundante música profana, vocal e instrumental, como las célebres Symphonies pour les Soupeurs du Roy. Las tres Leçons de Ténèbres de Michel-Richard de Lalande formaban parte inicialmente de un conjunto de nueve obras, escritas para los Oficios de la Semana Santa: jueves, viernes y sábado. Solo sobrevivió la tercera lección. Escritas hacia 1711 para el Convento de las Dames de l'Assomption -convento donde se reunían damas de la más alta nobleza- fueron interpretadas por las hijas de De Lalande, trágicamente fallecidas ese mismo año. Las Leçons de Ténèbres se publicaron junto con Miserere à voix seule –otra obra que formaba parte del Ceremonial de Semana Santa– en un volumen póstumo, fechado en 1730, registrado en París por Le Hüe en una edición a cargo de la viuda de De Lalande. Las lecciones están escritas en un lenguaje extremadamente elocuente y refinado, lleno de sutilezas expresivas en términos de declamación, contorno melódico, ornamentación y armonía, y son dignísimas compañeras de otros ciclos de lecciones más conocidos, como el de François Couperin.

Las Leçons de Ténèbres son una parte integral de la Liturgia del Triduo Pascual. El Oficio de Maitines, que tenía lugar de madrugada, se caracterizó por el apagado, uno tras otro, de las 15 velas colocadas en un candelabro piramidal especial - el tenebrario - y como el final de las ceremonias ya era cantado en oscuridad total con todas las velas apagadas, pasó a ser conocido como Tenebræ (Oscuridad en latín). Como las horas de la noche en que se realizaban no eran propicias para la adhesión de los fieles, las autoridades eclesiásticas permitieron adelantar maitines al final de la tarde del día anterior; Los maitines del Jueves Santo se celebraban el miércoles, por lo que se sabía que las piezas musicales destinadas al "Jeudi Saint" pertenecían al "Mercredi Saint", etc. Los Maitines alternaban 9 Responsos con 9 Lecturas - o Lecciones – de manera que los 3 primeros de cada día del Triduo se extraían del Libro bíblico de Lamentaciones. Tradicionalmente atribuidas al profeta Jeremías, las Lamentaciones fueron escritas alrededor del año 586 a. y constan de 5 poemas que lamentan la destrucción del Templo de Jerusalén bajo el rey Nabucodonosor, y el consecuente exilio y sufrimiento del pueblo judío. Se utiliza un lenguaje vivo, rico en imágenes y particularmente intenso en la descripción de temas como la miseria, la violencia, el dolor, la pobreza y el hambre. En la liturgia católica, su función era recordar a los cristianos los males del pecado y de una vida alejada de Dios, y apelar a su conversión, reviviendo la tragedia de la Pasión de Cristo.

Aunque el ceremonial parisino recomendaba que se cantaran con austeridad sobre los tradicionales tonos de recitación del Canto llano, las Tinieblas se fueron convirtiendo poco a poco en uno de los gritos más galantes de la ciudad de París, a la que acudían multitudes. Como la Académie Royal de Musique (Ópera) estaba necesariamente cerrada durante la Cuaresma, y otros entretenimientos también estaban limitados, se trataba de una oportunidad privilegiada para escuchar obras de los más grandes compositores de la época interpretadas por los intérpretes más expertos: los músicos de la corte recorrían los conventos y las iglesias de París y los propios solistas de la Ópera se unían a religiosos talentosos, para agregar al esplendor devocional de tales ocasiones.

Como lamentablemente no ha sobrevivido ninguna obra de De Lalande para órgano, se completa el programa con obras de tres grandes organistas contemporáneos franceses: Marchand, Raison y Du Mage.

**Fernando Miguel Jaloto, 2017**



**Eduarda Melo** sopranoa / **soprano**
Eduarda Melo kantuan graduatu zen Portoko ESMAE-n, eta Casa da Música opera estudioko eta Marseillako CNIPAL talde ezaguneko kide izan da. Bigarren saria irabazi zuen Toulouseko nazioarteko lehiaketan. Europako jaialdi askotara gonbidatzen dute, eta opera-antzoki ospetsuetan (Glyndebourne, Marseilla, Lille, Niza, Caen , Dijon, Paris, Lisboa) aritzen da zuzendari ezagunen esanetara, horien artean hauek: Marc Minkowski, Jérémie Rohrer, Ton Koopman, Hervé Niquet, Jean-Claude Casadesus, Antonello Allemandi, etab. Operako hainbat paper interpretatu ditu, besteak beste Soeur Constance (Dialogues des Carmelites), Corinna (Il Viaggio a Reims), La princesse Laoula (L'Étoile), Rosina (Il Barbiere di Seviglia), Elvira (L'Italiana in Algeri), Norina (Don Pascuale), Musetta (La Bohème), Despina (Cosi Fan Tutte), Erste Dame (Die Zauberflöte), Rinaldo (Armida/Myslivecek), Stéphano (Romeo et Juliette), Frasquita (Carmen), Gabrielle (La Vie Parisienne), Valencienne (La Veuve Joyeuse), Noémie (Cendrillon), Spinalba (La Spinalba), Fedra (L'Ippolito/Almeida), Ascanio (Lo Frate Nnamorato), Zemina (Die Feen), Vespina (L'Infedeltà Delusa), Euridice (Orfeo ed Euridice) eta Elle (La voix humaine). Musika garaikidearen arloan, António Pinho Vargas, Nuno Côrte-Real, Luís Tinoco zein Nuno da Rocha-ren lanetan parte hartu du. Antzinako musikari dagokionez, maiz kolaboratzen du Le Concert de la Loge (Julien Chauvin), Divino Sospiro eta Ludovice Ensemble taldeekin.

Graduada en canto en la ESMAE de Oporto, Eduarda Melo formó parte del Estudio de Ópera de la Casa da Música y del elenco del prestigioso CNIPAL de Marsella. Fue galardonada con el 2º premio del concurso internacional de Toulouse. Es invitada a numerosos festivales en Europa y canta bajo la dirección de directores como Marc Minkowski, Jérémie Rohrer, Ton Koopman, Hervé Niquet, Jean-Claude Casadesus, Antonello Allemandi en prestigiosos teatros de ópera (Glyndebourne, Marseille, Lille, Nice, Caen , Dijon, París, Lisboa). En ópera, los papeles de Soeur Constance (Dialogues des Carmelites), Corinna (Il Viaggio a Reims), La princesse Laoula (L'Étoile), Rosina (Il Barbiere di Seviglia), Elvira (L'Italiana in Algeri), Norina ( Don Pascuale), Musetta (La Bohème), Despina (Cosi Fan Tutte), Erste Dame (Die Zauberflöte), Rinaldo (Armida/Myslivecek), Stéphano (Romeo et Juliette), Frasquita (Carmen), Gabrielle (La Vie Parisienne), Valencienne (La Veuve Joyeuse), Noémie (Cendrillon), Spinalba (La Spinalba), Fedra (L'Ippolito/Almeida), Ascanio (Lo Frate Nnamorato), Zemina (Die Feen), Vespina (L'Infedeltà Delusa), Euridice (Orfeo ed Euridice) y Elle (La voix humaine). En el campo de la música contemporánea, ha participado en creaciones de António Pinho Vargas, Nuno Côrte-Real, Luís Tinoco y Nuno da Rocha. En el campo de la música antigua, colabora regularmente con Le Concert de la Loge (Julien Chauvin), Divino Sospiro y Ludovice Ensemble.



**Fernando Miguel Jalôto**
organoa eta zuzendaritza / **órgano y dirección**
Miguelek Klabezina, Antzinako Musika eta Interpretazio Historikoa ikasi zituen Hagako Errege Kontserbatorioan (Herbehereak) Jacques Ogg-ekin. Gustav Leonhardt, Olivier Baumont, Ilton Wjuniski eta Laurence Cummings-en eskola magistralak jaso zituen. Organo barrokoa eta klabikordioa ere ikasi zituen eta Kultura Zentro Nazionalaren beka bat jaso zuen. Musikako Masterra egin zuen Aveiroko Unibertsitatean, eta Zientzia Musikaletako doktoretza egiten ari da Lisboako Universidad Nova-n, FCTren beka batekin. Ludovice Ensemble-n, Portugaleko antzinako musikako talde aktibo eta ospetsuenetakoaren, sortzaile eta zuzendari artistikoa da. Casa da Música Orkestra Barrokoko kidea da, musikari gonbidatu gisa aritzen da Gulbenkian orkestran eta abesbatzan, eta nazioarteko talde espezializatuekin kolaboratzen du, hala nola Oltremontano, La Galanía, Vox Luminis, La Colombina, Red Herring eta Capilla Flamenca-rekin. Kontzertu ugari eskaini ditu Europa, Israel, Txina eta Japonian. Académie Baroque Européenne (Ambronay), Academia MUSICA (Neerpelt) eta Divino Sospiro orkestra barrokoko kide izan da. Hainbat disko grabatu ditu Ramée/Outhere, Brilliant Classics, Dynamic, Harmonia Mundi, Glossa Music, Parati, Anima & Corpo Conditura eta Veterum Musica zigiluentzat, bai eta Portugal, Alemania eta Txekiako irratientzat eta Mezzo, Arte eta RTP telebista-kateentzat. Zuzendaritzari dagokionez, errepertorio barrokoko obra ezagunenak zuzendu ditu, besteak beste Monteverdiren bezperak, Bachen meza eta kantatak, Scarlattiren oratorioak eta Lully, Charpentier zein Bourgeois-en operak, non eta Gulbenkian Fundazioan, CCB aretoan eta Utrecht, Brugge zein Antwerpen hirietako nazioarteko jaialdietan.

Miguel estudió Clavecín, Música Antigua y Prácticas Interpretativas Históricas en el Conservatorio Real de La Haya (Países Bajos) con Jacques Ogg. Asistió a clases magistrales con Gustav Leonhardt, Olivier Baumont, Ilton Wjuniski y Laurence Cummings. También estudió órgano barroco y clavicordio, y fue becado por el Centro Nacional de Cultura. Es Máster en Música por la Universidad de Aveiro y estudiante de doctorado en Ciencias Musicales por la Universidad Nova de Lisboa con una beca de la FCT. Es el fundador y director artístico del Ludovice Ensemble, uno de los grupos de música antigua portuguesa más activos y prestigiosos. Es miembro de la Orquestra Barroca Casa da Música, músico invitado de la Orquestra y Coro Gulbenkian, y colabora con agrupaciones internacionales especializadas como Oltremontano, La Galanía, Vox Luminis, La Colombina, Red Herring y Capilla Flamenca, entre otras. Actuó en numerosos conciertos en Europa, Israel, China y Japón. Fue miembro de la Académie Baroque Européenne de Ambronay, de la Academia MUSICA de Neerpelt y de la orquesta barroca Divino Sospiro. Ha grabado para Ramée/Outhere, Brilliant Classics, Dynamic, Harmonia Mundi, Glossa Music, Parati, Anima & Corpo Conditura y Veterum Musica, así como para la radio portuguesa, alemana y checa, y los canales de televisión Mezzo, Arte y RTP. Como director ha dirigido grandes obras del repertorio barroco como las Vísperas de Monteverdi, las misas y cantatas de Bach, los oratorios de Scarlatti y óperas de Lully, Charpentier y Bourgeois, en espacios como la Fundación Gulbenkian y el CCB, y en festivales internacionales como como Utrecht, Brujas y Amberes.

**Ludovice Ensemble**
Ludovice Ensemble Antzinako Musikaren interpretazioan espezializatutako talde bat da. Lisboan du egoitza, Fernando Miguel Jalôto eta Joana Amorim-ek sortu zuten 2004an, eta bere helburua da XVII. eta XVIII. mendeetako ganbera-errepertorioa (ahotserako zein instrumentuentzako idatzia) zabaltzea antzinako instrumentuak erabiliz. Taldearen izenak omenaldia egiten dio Johann Friedrich Ludwig (1673-1752) arkitekto eta urregileari, zeina ezagun egin baitzen Portugalen Ludovice izengoitiarekin. Maiz kolaboratzen du Portugaleko interprete espezializatu onenekin, bai eta atzerriko artista ospetsuekin. Ludovice Ensemble-k Portugaleko jaialdi nazional garrantzitsuenetan jo du (Viana do Castelo, Braga, Famalicão, Porto, Gaia, Leiria, Alcobaça, Óbidos, Lisboa, Castelo Branco, Évora, Beja, Barrancos, Loulé, Tavira, Lagos eta Funchal), eta sarritan aritzen da Lisboan dituen bi egoitza nagusietan, hots, CCB-n eta Calouste Gulbenkian Fundazioaren aretoan. Portugal ordezkatzeko aukeratua izan zen 2011n Casa da Música aretoan egin zen Réseau Européen de Musique Ancienne / European Early Music Network -REMA- jaialdian. Bestalde, hainbat emanaldi eskaini ditu atzerrian, hala nola Belgikako Laus Polyphoniae jaialdian (AMUZ, Antwerpen), Brugge-ko MA jaialdian, Utrecht-eko Oude Muziek jaialdian (Herbehereak), La Chaise-Dieu, Musiques en Vivarais-Lignon eta Festes Baroques de Bordeaux jaialdietan (Frantzia), Pragako Musika Barrokoaren Jaialdian (Txekiar Errepublika), Portugalen Dublineko Enbaxadan (Irlanda), Camiños en Santiago jaietan (Jaca), Aranjuez, Daroca, Peñíscola eta Pirinioetako antzinako musika jaialdietan, Badajozeko Musika Jaialdi Iberikoan, Lugoko Arteen Zikloan, San Lorenzo del Escorialeko Carlos III.a Errege Koliseoko Otsail Lirikoan, eta Gasteizko Antzinako Musikaren Astean (Espainia).

Zuzeneko grabaketak egin ditu RDP-Antena 2 katearentzat, Txekiako Irrati Nazionalarentzat (ČRo) eta Frantziako MEZZO telebista-katearentzat. Bere lehen diskoa, Ramée/Outhere zigilu frantses/belgikarrarentzat grabatua, ICMA sari ospetsuetarako izendatua izan zen 2013an, Baroque Vocal kategorian. Ludovice Ensemble-k Huelgas Ensemble/Paul Van Nevel talde belgikarrarekin kolaboratu zuen D. Caccini-ren La Liberazione di Ruggiero operaren Portugaleko estreinaldian, eta bi kontzertu eskaini ditu Enrico Onofri biolin-jole italiar ospetsuarekin, zeintzuetan Corelli, Pasquini eta Scarlatti-ren obrak interpretatu baitituzte. Azkenaldian eman dituen kontzertuei dagokienez, hona hemen aipagarrienetako batzuk: Monteverdik 1610ean idatzitako Ama Birjinaren Bezperak, Moliére/Lully-ren Le Bourgeois Gentilhomme, eta A. Scarlatti-ren Cain overo il primo omicidio CCB-n; Racine/Lully-ren Idylle sur la Paix, Charpentier-en Les Arts Florissants eta musika barroko judutar sefardia Lisboako Gulbenkian Fundazioaren aretoan; eta J. S. Bachen kantatak Alcobaça-ko Cistermúsica jaialdian. Israelen debutatu zuen Tel Aviveko Felicja Blumental jaialdian, eta berriro itzuli zen 2020an. Urte hartan bertan bere bigarren CDa kaleratu zuen, zeinetan Graun anaien musika galante alemana bildu baitzuen. Tallineko MustonenFest jaialdian debutatuko du, Aranjuez eta Jacako jaialdietara itzuliko da Fernão de Magalhães-en garaiko musika portugaldarrez osatutako egitarau batekin, eta Bachen Musikalisches Opfer-en bertsio propioa aurkeztuko du Marvão Nazioarteko Musika Jaialdian.

Ludovice Ensemble es una formación especializada en la interpretación de Música Antigua, con sede en Lisboa, y creada en 2004 por Fernando Miguel Jalôto y Joana Amorim, con el objetivo de difundir el repertorio de cámara vocal e instrumental de los siglos XVII y XVIII a través de y utilizando instrumentos antiguos. El nombre del grupo honra al arquitecto y orfebre alemán Johann Friedrich Ludwig (1673-1752), conocido en Portugal como Ludovice. El grupo trabaja regularmente con los mejores intérpretes portugueses especializados, así como con prestigiosos artistas extranjeros. Ludovice Ensemble ha actuado en Portugal en los principales festivales nacionales (Viana do Castelo, Braga, Famalicão, Porto, Gaia, Leiria, Alcobaça, Óbidos, Lisboa, Castelo Branco, Évora, Beja, Barrancos, Loulé, Tavira, Lagos y Funchal) y es una presencia habitual en las dos sedes principales de Lisboa: el CCB y la Fundación Calouste Gulbenkian. Fue el grupo elegido para representar a Portugal en la reunión de la Réseau Européen de Musique Ancienne / European Early Music Network - REMA - en 2011, en la Casa da Música. El Ludovice Ensemble actuó en el extranjero en el festival Laus Polyphoniae de Bélgica (AMUZ, Amberes) y en el festival MA de Brujas, en el festival Oude Muziek de Utrecht (Países Bajos); en los festivales de La Chaise-Dieu, Musiques en Vivarais-Lignon y Festes Baroques de Bordeaux (Francia); en el Festival de Música Barroca de Praga (República Checa); en la Embajada de Portugal en Dublín (Irlanda); en las fiestas de Camiños en Santiago de Jaca; en los festivales de música antigua de Aranjuez, Daroca, Peñíscola y Pirineos; en el Festival Ibérico de Música de Badajoz; en el Ciclo de Artes de Lugo; en el Febrero Lirico del Real Coliseo Carlos III de San Lorenzo del Escorial; y en la Semana de la Música Antigua en Vitoria-Gasteiz (España).

Ha grabado en vivo para RDP-Antena 2, la Radio Nacional Checa (CRo) y el canal de televisión francés MEZZO. Su primer CD, para el sello franco-belga Ramée/Outhere, fue nominado en 2013 a los prestigiosos premios ICMA en la categoría Baroque Vocal. Ludovice Ensemble ha actuado en colaboración con la formación belga Huelgas Ensemble/Paul Van Nevel en el estreno portugués de la ópera La Liberazione di Ruggiero de F. Caccini, y ha colaborado en dos conciertos con el célebre violinista italiano Enrico Onofri con obras romanas de Corelli, Pasquini y Scarlatti. Los conciertos recientes incluyen Vísperas de Nuestra Señora de Monteverdi de 1610, Le Bourgeois Gentilhomme de Moliére/Lully y Cain overo il primo omicidio de A. Scarlatti en el CCB; Idylle sur la Paix de Racine/Lully, Les Arts Florissants de Charpentier y música barroca judeo-sefardí en la Fundación Gulbenkian de Lisboa; y Cantatas de J. S. Bach en el Festival Cistermúsica de Alcobaça. Debuta en Israel en el Festival Felicja Blumental de Tel Aviv, donde regresa en 2020. También en 2020 lanza su segundo CD, dedicado a la música galante alemana de los hermanos Graun; debutará en Estonia en el MustonenFest de Tallin; vuelve a los festivales españoles de Aranjuez y Jaca con un programa de música portuguesa de la época de Fernão de Magalhães, y llevará su versión de la Ofrenda Musical de Bach al Festival Internacional de Música de Marvão.

